

Domingo Azantza jaun ximistaren *Laborarien abisua* (1692) liburu galduaren eskuzko beste kopia bat¹

Kepa Altonaga

Zoologia eta Animalia Zelulen Dinamika Saila.
Zientzia eta Teknologia Fakultatea (UPV/EHU)


Laburpena: Idazlan honetan ezagutzera ematen da *Laborarien abisua* liburuñoaren (1692) eskuzko beste bertsio bat, XVIII edo XIX. mendekoa eta hizkeraz Amikuze edo Oztibarrekoa izan daitekeena; egile putatiboaren ohiko izena arau akademikoetara dakargu. Halaber, kontestualizatu egin da XVII. mendetik aurrerako euskarazko liburu teknikoen agerpena.

Abstract: In this paper we present a handwritten copy of the brochure *Laborarien abisua* (1692), which possibly dates back to the 18th or 19th century and coming from the pays de Mixe or from l'Ostabarret; in addition, we adapt the putative author name of the book to the academic regulations. Moreover, we contextualize the emergence of technical books in Basque from 17th.

1. SARRERA

Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* [1] liburuaren orrialdeetan egin nuen topo gure Parnaso txikiko izen ordura arte niretzat ezezagunekin. Sasoi hartan, Biologiako ikasketak amaitzear nengoela, euskal literaturaren XVII. mendeak erakarri ninduen oroz gain Villasanteren azalpenetan: Lapurdiko loraldia eta, hain zuzen ere, Sarako Eskolaren inguruan bildu zen idazle sorta, hala nola Axular mitikoa, Joanes Etxeberri Ziburukoa, Esteban Materre, Joanes Haranburu, Piarres Argaiñaratz, Kristobal Harizmendi eta beste, gehien-gehienak elizgizonak [1: 67-95]. Villasanteren

¹ Eskerrik beroenak Nerea Altuna, Karmele Artetxe, Isabel Diaz, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Jurgi Kintana, Txema Larrea, Juan Carlos Odriozola, Josune Olabarria, Mateo Pagazaurtundua, Fernando Plazaola eta Iñaki Sarriugarteri eman dizkidaten era askotako laguntzengatik. Azkue Bibliotekak giro ezin hobea opetsi dit lanerako.



1. irudia. *Itsasoko nabigazionekoa* liburuaren azala, Txertoa argitaletxeak 1985ean plazaraturiko faksimiletik hartua [2].

esanean, idazle humanista horiek sekulako gailurretaraino eroan zuten lapurtera, eta haien prosazko zein bertsozko obrak —soilik hiru dozena denetara— klasiko eta eredugarritzat jo ohi dira.

Erljio-gaietatik kanpo liburu tekniko jakingarri bi aipatzen ditu Villasantek Lapurdiko loraldiaren aro horri dagozkiola [1: 94-95]. Bata, Piarres Etxeberri «Dorre»ren *Itsasoko nabigazionekoa*, 1677an argitaratu zen Baionan (1. irudia). Itzulpen bat da izatez, eta jatorrizkoa Martin Oihartzabal kapitain ziburutarrarena: *Les voyages aventureux du capitaine Martin de*

Hoyarsabal, habitant de Çubiburu. Izenburua gorabehera, itsasoko atlas bat da, kartografi liburu bat «arrutak» erakusten dituena, «Españiakoak, Frantziakoak, Bretaniakoak, Normandiakoak, eta Picardiakoak, Flandreskoak, Angeleterrakoak, Irlandakoak, Eskosiakoak, eta Ternubakoak, hala nola baitire segidan iskribatubak, plazer duten maistrubenzat edo pillotubenzat, edo itsasoan nabigatzen dutenentzat, perilletarik goardatzeko» [2]. Bide batez esatekoa da, klasiko lapurtarren eraginpean-edo, Zientzi Fakultateko lankide batzuek *Itsasoko nabigazionekoa* horren mikrofilma eskatu genuela Pariseko Biblioteka Nazionalera laurogeietako hamarkadaren hasieran, artean 1985eko faksimilea plazaratu gabea zela [2], eta behin jaso eta gero mintegi bat antolatu genuela, euskara teknikoaren aitzindaritzat geneukan hori sakon aztertzeke asmoz. Nolanahi, [3 eta 31] erreferentzietan aurkituko dituzu xehetasun asko liburu horretaz eta bai euskaratzaileaz ere.

Lapurdikiko loraldiko bigarren liburu teknikoak ez du titulurik Villasanterean [1: 95], bakarrik egilearen izen «exotikoa», alegia, Mongongo Dassança, baxenafartarra zela, 1692an argitaratu zela, eta Piarres Lafitteren destainazko ohar labur bat, albaitaritzaz dela aipatuz (Lafitteren iritziak: [4: 60, eta 5: 41]). Halaber, Villasantek dakar testua Daranatzek berrargitaratu zuela RIEVen. Izatez, ez da XVII. mendeko argitalpenaren inolako alerik ezagutzen, baina, *Laborarien abisua* —horrela deritzo normalean— irakurgarri aurkituko duzu hainbat estekatan: kasurako, Koldo Mitxelena Kulturuneak eskaintzen digu Daranatzek 1900ean (?) liburuxka gisa plazaratu zuenaren bertsio digitala [6], eta, bestalde, Villasantek aipaturiko bertsioa [7: hainbat aukera]; *Eskualduna* astekariak ere atalka argitaratu zuen 1908ko bertsio hori [8].

Esan bezala, ez da ezagun *Laborarien abisua* liburuaren 1692ko inolako alerik, eta Daranatzeren berrargitarapenerako, dirudienez, eskuzko kopia bat erabili zen, Baigorriko laborari —*paysan*— batena [7-8], baina, ziurrenez XVII. mendekoa baino geroagokoa. Izatez, hamasei orrialde dira, idiaren gaitzak eta berorientzako erremedioak aipatzen dituztenak: berrogei bat erreze-ta denetara. Kontua da Txomin Peillenek beste kopia diferente bat aurkitu zuela Pariseko Biblioteka Nazionalen [9], 1891koa-edo, Amikuze aldeko Jauregiberri izeneko batena. Argitaratu dira kopia gehiago ere, polemika txiki baterako gaia suertatu direnak [10 eta 11]. Izan ere, biotariko lehenengo artikuluan [10] *Laborarien abisuaren* beste aldaera bi plazaratu ziren, bata, Barkoxekoa, XVIII. mendekoa ziurrenez [12], eta bestea *Marexalen liburria* deritzona [13], 1830-1831 urteetan zehar Bertrand Goienetxe maisuak Donibane Garazin kopiatua. Bigarren artikuluan osteria [11], aurrekoaren hainbat datu zuzendu eta zehaztuz gainera, egileak bidegabeko jabetzea aurpegiratu zion aurreko sinatzaileari, alegia, apropiazio bidegabea.

Orain urtebete Azkue Bibliotekako lagunek Lafitte Funtsean gordetako beste kopia ezezagun biren berri eman zidaten adeitasun osoz, eta hemen argitaratuko dugu biotaririk kaligrafiarik ulergarriena duena, pentsatuz inte-

resgarria suertatuko zaiola *Ekaiako* irakurleari horrelako idazki tekniko arkaiko baten behaketa artatsua.

Gure artikulu honek helburu bi ditu: hasteko eta behin ezagutzera ematea *Laborarien abisua* delakoaren eskuzko beste bertsio bat, XVIII edo XIX. mendekoa eta hizkeraz Amikuze aldekoa edota Oztibarrekkoa izan daitekeena, bide batez egile putatiboaren ohiko izena arau akademikoetara plegatuz; bigarrenik, XVII. mendetik aurrerako euskarazko liburu tekniko horien agerpena eta presentzia kokatzen ahalegintzea, horretarako Beñat Oihartzabalen ideiez baliaturik [14-17, 19, 21]. Dena dela, bigarren honetatik abiatuko gara haria hobeto segituko delakoan.

2. LAPURTERAREN XVII. MENDEKO LORALDIA, FRANTSESAREN INDARTZEA ETA EUSKARA IDATZIAREN PRESTIGIO-BEHERAKADA XVII-XVIII MENDEETAKO IPARRALDEAN

Lapurdiko itsas hegian eta inguruetan, Sarako eta Donibane Ziburuko aldean batez ere, liburugintzak XVII. mendean bizi izan zuen loraldia azaltzeko, ohikoa izan da arrazoi ekonomikoak mahaigaineratzea, eta horrelaxe egin zuen, besteak beste, Villasantek ere [1: 101-102]. Lafitte kalonjea izan zen azalpen arrakastatsu hori iradoki zuena [5: 43], argudiatuz Utrechtoko itunak (1713) gainbehera eragin ziola ordurarteko oparoaldiari; izan ere, nazioarteko hitzarmen horrek amaiera eman zion hamar bat urteko gerla luzeari, eta, Espainiako tronuan borbondarrak ezartzeaz gainera, aldatu egin zuen Europako mapa politikoa. Esaterako, Britainia Handiaren menpe gelditu ziren, hala Gibraltar eta Menorca —lehenago Espainiarenak zirenak— nola Ternua eta San Lorentzoko Golkoko beste zenbait lurralde —Frantziarenak—. Azken galera horrek, jakina, ondorio ekonomiko negargarriak edukiko zituen Luis XIV.a Eguzki erregearen agindupeko Lapurdiko portuetan, eta hedaduraz probintzia osoan.

Alabaina, argudiaketa hori hurbilagotik behatuta Beñat Oihartzabalek auzitan jarri du Piarres Lafitteren azalpenaren ondadea, haren iritziz ez baitirudi XVII eta XVIII. mendeetan Lapurdiko ekonomian gertatu aldaketek oihartzun zuzenik ukan zutenik lapurterazko letra-sorkuntzan, hau da, ez zegokeen benetako paralelismorik lapurterazko liburugintzaren eta Lapurdiko portuetako jardunaren artean. Izan ere, Oihartzabalek dokumentatu duenez [16: 14-15], portuen gainbehera eta Donibaneko eta Ziburuko gizarte-ahulaldia 1740. urte ondotik hasi zen, hots, loraldia baino mende laurden bat geroago; areago, lapurtera sendoki finkatu zen garaiaren (1627: *Manual Devotionezcoa*/1643: *Gero*) erdian, itsas hegiak arras aldi gaiztoa bizi izan zuen: Frantzia eta Espainia arteko gerla zela-eta, Lapurdin barrena zebiltzan bai armada frantsesa eta bai espainola ere, eta Espainiako erre-

gearen soldaduek Ziburu kasik osoki suntsitu zuten 1636an, eta, halaber, Donibane Lohizunen ere sartu ziren, Azkainen eta Urruñan bezala. Oihartzabelek dioskunez, «beste nonbait xerkatu behar ditugu, beraz, lapurterazko idazkigintzaren denbora haietako gorabeheren eragileak. Non? Nire ustez, kultura bizitzaren antolamenduan, eta guztiz ere hizkuntzen arteko kultura eremuen partikamenean» [16: 11].

Beñat Oihartzabalek, hortaz, beste lan-hipotesi bat gauzatu du, beste eszenario bat itxuratu du, ulertu ahal izateko Lapurdiko loraldiko idazleen agerpena eta norentzat idazten zuten. Haren ustez, eta darabiltzan datuen arabera, XVII. mendearen hastapeneko Lapurdin euskara zen gizarteko hizkuntza arrunta, bai eta gehienentzat bakarra ere, latina zelarik jakintza-hizkuntza, eta bai frantsesa ere, azken hau gero eta gehiago nagusitu zen mendea aurrera joan ahala, goi mailako jende artean, legegizon zein armadako eta elizako buruzagi. Nolanahi, herritar gehienak, bai laborari eta ofizialeak, bai merkatari eta marinelak, euskara hutsez bizi ziren: nahikoa zuten euskararekin [16: 15]. Areago, oso probablea da XVII. mendearen hasierako Lapurdiko —eta oro har Euskal Herriko— biztanleriaren geruza jakin batzuk euskaraz alfabetizatuta egotea, era trakets batean izan arren: Beñat Oihartzabalek [14: 47] horren frogatzat jotzen ditu Urtubiako andereak 1597-1598 tartean Gipuzkoako gobernadore Juan Velazquezi igorritako eskutitzak [18].

Oihartzabalek agerian utzi du XIX. mendera arte Iparraldeko «ororen eskoletan» —*petites écoles* frantsesez— euskarazko irakaskuntza bat egon zela XVII eta XVIII. mendeetan zehar, nahikoa apala bazen ere. Ondoz ondoko hiru maila zituen: «lehenen irakurtzea, bigarrena idaztea, eta hirugarrena kalkulatzeko. Haurrek maila horien arabera ordaindu behar zuten eskolatzea» [15: 84]. Ez da batere erraza oinarritzko eskolatzeko horren eragina eta ekarria neurtzea: ezkontza-agirietako sinadurak dira idatziari buruzko gaitasuna izartzeko erabili izan diren hurbilketa modu bat, eta datuen arabera, badirudi XVIII. mendearen hondar partean Lapurdiko senarren laurdenek, herenek premuen artean, bazekitela izenpetzen [15: 85]. Jakina, oso eztabaigarria izan daiteke metodo hori, baina besterik ezean alfabetatze mailaren gutxi gorabeherako ideia bat eskaintzen digu, oso baliagarria; Oihartzabalek hainbat herritako portzentaiak bildu ditu sexuen arabera [15: 101-102]. Nolanahi, aintzat hartuz irakurketak eta idazketak dituzten berezitasunak eta bai ororen eskoletako mailakatzea ere (irakurtzea/ idaztea/ kalkulatzeko), uste izatekoa da irakurtzeko gaitasuna doi bat handiagoa zela, sinaduren portzentaiak idazketari buruz erakusten dutena baino.

Dena dela, pentsa dezakegu bazegoela nolabaiteko alfabetizazio maila, eta aspaldi zuela baliatzen zela euskara idatzia Lapurdiko gizartean, euskara izanik lapurtar gehienek horretarako erabil zezaketen mintzaira bakarra. Horren froga lirarteke, bestalde, bai Materrek eta bai Axularrek damaizkiguteren lekukotasunak, bi-biok baitiote bazirela XVII. mendearen lehen partean Lapurdin euskara baizik ez zekiten irakurleak. Halaxe jaso ditu Oihartzaba-

lek [19: 39] Materrek *Dotrina christiana* liburuaren bigarren argitalpenean (1623) eginiko aitzinsolaseko hitz hauek:

Eta ceren **añhitz baita Euscal-herrian iracurtcen daquienic, baiña ez Euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen**, halatan eguin ditut halacoençat Euscaraz debocinozco othoitz eta oracino batçu, goicetan, arratsetan, eta bertce añhitz demboratan eta ocasinotan eguin eta erran ahal ditezqueyenac.

Materrek liburu horretan, gainera, otoitzak eman zituen marinelentzat, hau da, Materrek bazekien itsas untzietan euskaraz irakurtzeko gai ziren marinelak izanen zirela, itsasaldietan haren liburua eskuetan edukiko zutenak:

Eta hauquen ondoan erran beça çuetaric batec [itsasoan dabiltzan marinelei mintzatuz] aphurbat gora eta haguitz orai hemen ibenico dudan othoitz: eta bitartean eduqui beçate bertcec ere hartan gogoa, ençun beçate, edo norc bere liburuetan ixilic iracur beçate, ceren estimatcen dut ez-tela içanen bat-ere iracurtcen daquien marinelic liburu haur içanen ez-tuenic. [19: 39]

Zer esanik ez, bete-betean koka genezake testuinguru horretan gorago aipatu dugun Piarres Etxeberrri «Dorre»ren *Itsasoko nabigazionekoa* (1677). Aurelia Arkotxak dioenez [3: 65], liburu tekniko horren existentziak berak frogatzen du orduko marinelek bazutela euskaraz idazteko eta irakurtzeko beharra eta gaitasuna. Ildo beretik gogorarazten digu Joanes Etxeberrri Ziburukoaren *Manual Devotionezkoa* (1627) baitan badagoela hogeita hamaika orrialdetako atal bat *Itsasoco biayetaco othoitcen aralde* izenekoa, beren-beregi marinelentzat pentsatua.

Axularrek asmo bera darabil —alegia, euskaraz beste hizkuntzarik ez zekiten irakurleak— *Gero* (1643) famatuaren irakurtzaileari egindako aitzinsolasean, dioskunean zer-nolako pertsonak zeuzkan gogoan, nortzuk ziren haren xede: *Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baiizen etziakitenentzat, egitea. [...] Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus ezta kitenentzat ere* [20]. Axular, beraz, herriko mintzairan irakur zezaketenentzat aritu zen, latina eta frantsesa arrotz zutenentzat.

Nolanahi ere den, ez dago dokumentazio askorik ororen eskolen zabal-kundeaz, baina, badirudi aski hedatuta zeudela Euskal Herrian. Oihartzabalek makina bat herritako eskolak zerrendatzen ditu, eta ausartu ere ausartzen da, dokumentazio-eskasia gorabehera, ororen eskola horien ezaugarri nagusiak ematen: «i) katiximaren irakasteari lotuak ziren oroz gainetik eta horregatik irakurketa zen haurrei eskaini nahi zien oinarrizko irakaskuntza (haur askorentzat bakarra, bereziki laborari familietakoen kasuan); ii) katixima

euskaraz egina izanik, irakurketaren oinarriak ere hain segur euskaraz finkatzen ziren; iii) irakasleen maila hala-holakoa zen, lanbide aski gaizki ordaindua baitzatekeen; iv) mutikoentzako eskola zen gehiago neskentzako baina, hirietarik kanpo bereziki» [15: 86]. Hortaz, ororen eskolak ez ziren jakintza-eskolak, eta ziurrenez horietako gutxik irakatsiko zuten jakintzarako bideak irekitzen zituen frantsesa, eta are gutxiagok latina.

Ohartzekoa da, hala ere, ikusmolde horretan ezinbestearen ondorioa dela euskararen erabilpena: latina eta frantsesa jakin gabe, euskaldunek euskarazko liburuak behar dituzte, dela otoitz-liburuak, katiximak, edota liburu teknikoak. Baina, ondoko mendeetan frantsesa sartu ahala eta euskaldun populua frantsesaz jabetu arau, asumitu egingo da jadanik ez zegoela euskal irakurgaien premiarik, eta ondorioz ez da ezer sortuko euskaraz —edo arras gutxi—, frantseseko liburuez elika baitaiteke euskaldungoa. Hau da, era horretara Iparraldean ere garatuko da, Hegoaldean XVI. mendearen hasiera-hasieratik bizi zen egoera [16: 19-20]. Ezinbestea azpimarratu du Karmele Artetxek ere bere tesi dotorean, XVI. mendetik XIX. mendearen amaiera arte euskaldun elebakarrengana zuzenduriko produkzio idatzia azaltzeko, euskara baitzen, izan ere, erdararik ez zekitenengana iristeko tresna bakarra, eta tresna horren derrigorra aipatuz justifikatu du euskal letretako testu erlijiosoan ugaritasuna [30: 14]. Halaber, Karmele Artetxek planteamentu pragmatiko horren baitan kokatu ditu laborari euskaldunentzako argitalpenak eta osasungintza arloko idazlanak, baina, esplizituki deslotu ditu euskara zientifikoaren edozelako asmotatik: ikasketa gutxiko euskaldunei zuzenduak dira, maila ez jasokoak, eta sarritan erdaretatik hala-moduz itzuliak [30: 19].

Beñat Oihartzabalen arabera, legearen eta administrazioaren mundutik kanpo, XVII. mendearen hasieran frantsesak ez zuen lehentasunik Iparraldeko gizartean hizkuntza idatzi gisara. Artean latina da hizkuntza nagusia, eta adibidez latinez idatzi zuen Arnaut Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitaniae* bere historia-liburua 1636an, baina, frantsesera lerratu zen *Les Proverbes Basques, recueillis par le Sr. d'Oihenart; plus les poésies basques du mesme auteur* (1657) eta *L'art poetique* (1665). Frantsesaren aldeko joera nabarmenduz zihoan, baina, idatzizko erraztasuna atxikitzeke Euskal Herritik atera behar zen, ez baitzegoen bertan goi mailako eskolarik, ez eta apaizgaitegirik ere 1733ra arte, hots, Larresoroko Seminarioa sortu arte. Hortik aurrera Larresorokoa izango da Iparraldeko ikastetxe garrantzizkoena: dirudienez euskarak ez zuen lekurik hartu hango ikasketetan [16: 29-30].

Hari beretik, frantsesaren hedatzea erdi-mailako jendaldeetan, are hobeki erakusten du Martin Harriet notarioaren gramatikak (1741). Gramatika horren helburua, tituluak berak halaxe adierazia —*Gramatica escuaraz eta francesez, composatua Frantsez hitzcuñça ikhasi nahi dutenen faboretan*—, frantsesa irakastea zen. Beñat Oihartzabalen iritziz, guztiz argigarria

da ikustea Harrietek zelan azaldu zuen zertan beharrezkoa zuten euskaldunek frantsesaren jakitea:

Trabaiillu xumetto hunen argitarat emateko obligatu nauen arrazoiña ez da berzerik baizen emateko lagunza piskabat franzes hitzkuntza ikhasterat enseiatzen diren eskualdunei. Halatan ez dut egiten presenteko liburu xume hau bera examinatua izateko, baiñan bai hunen medioz franzes hitzkuntza ikhasteko gutizia duten eskualdunek izan dezaten lagunza eta erraxtasun gutibat, presuna sabant eta jakinsunek egiñ dituzten liburuetarik zerbaiten komprenitzeko, eta hetarik zenbaiten probetxuren atheratzeko.

Argi dagoenez, Harrietek jende alfabetizatua du helburu, bai, baina garbi dauka frantsesa dela ezinbesteko tresna Iparraldeko euskaldunentzat jakintzazko mundura hegaldatzeko [16: 31; 21].

Niretzat oso harrigarria izan da ikustea, Oihartzabalek erakutsi bezala [16: 33; 21], euskararen ospea apalduz joan zela euskara idatzia oinarriko eskolatzeari esker gizartean zabaldu den heinean; izan ere, euskarazko idazkiak gero eta gehiago zuzentzen ziren soilik euskaraz zekitenei, eta asimetria horren ondorioz nabarmen baliogabetu ziren. Joera horren adibide alagalakotzat du Beñat Oihartzabalek Donaixti-Ibarreko Lopez erreto-rea, zeinak 1782an argitaratu baitzuen Alfonso Rodriguezen *Práctica de la perfección cristiana* (1609) obraren euskarazko moldapen bat. Izatez, frantsesezko bertsio batetik itzulita dago, eta euskara baizik ez dakitenendako egina da, izenburuak net argi adierazten duenez: *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristhinho perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara beçic eztakitenen daco*. Jakina, Materrek eta Axularrek beste horrenbeste egin zuten, baina mende eta erdi geroago izanik eta frantsesak ordurako egin aurrerakada aintzat hartuta, guztiz bestelakoa da errestrikzio horren gainean egin daitekeen gogoeta, zeren, haiek maila ertaineko euskaldunentzat idatzi zutelarik, *jende praubeei* zuzendu baitzuen Lopezek bere itzulpen-egokitzapena. Oihartzabalek jaso duenez [16: 33-34; 21], Lopezek aitzinsolasean aitortu zuen:

Lanaren luzetarzunaz zen bezambat, ene Adiskidiaren seindimendia zuzun laburtzia hobe zela, liburu hedatu horren pharte bat gende komunaren hoben denaren xoilki Heuzkarala itzuliz, eta bestiak utziz; ceren halaz liburria labur-ago baitate eta merkiago, eta hantik gende praubek ihikiago erosiren, eta aborok probetxaturen.

Arrazoin horiek, ene Irakurzale Maithia, ene bihotzeko dudak kendu tizie, eta ekarri nizie erran dudan liburu horren, ez ororen, bena pharte baten Heuzkarala itzultzera intseatzera, eta ene ustez horren kapitulu gende komunaren probetxosenak hautatu tizit, bai-eta heendako auher zauzkidan kapitulu heen pharte zumbait utzi.

Beñat Oihartzabalen iritziz guztiz interesgarriak dira Lopezen pasarte bi horiek, lehen aldiz eta ezinago argi aitortzen baitute norentzat gelditu ziren euskarazko liburuak Iparraldeko banaketa diglosikoan XVIII. mendean: idazlanaren hartzaileak jende komunak dira, pobreak eta erruralak, eta komeni da, beraz, testuak ez daitezela izan luze eta korapilatsuak, eta ez karioak ere. Beste zehaztapen bat ekarriko dut Lopezen itzulpenari buruzkoa. Lafittek dioenez [22: 439-440], Rodriguezen liburuaren zazpi itzulpen agertu ziren frantsesez —315 kapitulu eta 1400 bat orrialde—, baina baita hiruzpalau laburpen; euskarazko itzulpenak ez ditu 466 orrialde baino, eta 74 kapitulu: aitzinsolasak argitzen duenez, Lopez 600 orrialdeko laburpen frantses batez baliatu zen. «Beraz, laburpen baten laburpena da». Hala ere, dirudienez, «itzulpen» bi eduki zituen Lopezen laburpenak, bata lapurteraz eta bestea zubereraz, inoiz argitaratu ez baziren ere.

Horrela, bada, poliki-poliki euskarazko idazlanak azken erremedio bilakatuko dira, biztanle elebakarrentzat erreserbatuak: idatzizko euskara, ematen du, eskola gutxiko euskaldun elebakarrentzat gordetzen dela azken beltzean, alegia, mundu erruraleko biztanleria behartsu eta hala-holako hezkuntzatik urrunduarentzat. Era horretara-edo azaldu du Beñat Oihartzabalek euskara idatziaren presentziaren bilakaera Iparraldeko lurretan: hasiera bateko nolabaiteko loraldia XVII. mendean, eta osteko beherakada nabarmena.

3. **LABORARIEN ABISUA (1692) LIBURU GALDUAREN ESKUZKO KOPIA BERRI BAT**

Laborarien abisua da, gorago esan bezala, Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vascan* aurkitu nuen bigarren liburu teknikoaren ohiko titulua, bertan izenbururik gabe badator ere [1: 95]. Villasantek 1692an argitaratu zela diosku, baina, Lafittek, ostera, *liburuñoa* «1692-ko udan ager zitekela» [4: 60]. Hau da, ustezko lehen argitalpen horren alerik ezagutzen ez denez, ez da ziurra liburua urte horretakoa denik eta ez ere inprimatu egin zenik benetan. Lafittek eskuizkribuaren baimeneko egunetik ondorioztatu zuen argitarapen-data posible hori: «...iduritzen baitzait obligatua naizela ene aprobazionearen emaiterat, hala nola emaiten baitut Donibane Ziburun, oxailaren 14 eta 1692. GASTANBIDE docteur» [7]. Neuri, egia esateko, oso zalantzakoa iruditzen zait *Laborarien abisua* benetan inprimatua izana eta alerik batño ere ez gelditzea, baina bestalde han-hemenka eskuzko hainbeste kopia agertzea.

Daranatzek argitaratu hamasei orrialdeko edizioaren arabera, baimena izenpetu duen Gaztanbide medikuari dedikatuta dago liburuñoa, eta Lapurdi eta bertze inguruetako euskaldun guztiak ditu gogoan [6-7]. Gero, Gaztanbideren «aprobazionearen» ondotik, berrogei bat erremedio azal-

tzen dira idiaren beste horrenbeste gaitz sendatzeko —horixe da liburuaren mamia—, baina azalpen horien aurretik badago aitzinsolas labur bat, paragrafo biz osatua. Lehen paragrafoaren azken erdia aldatuko dugu hona:

Eta nola hanitx norc bere nacionentçat travaillatu baidire alemaniacoc alemanez, espainiacoc ezpaignolez, hala nola francian eguin baitute Maison rusticaz franssesen, eta gu franciacoc içan arren ezcualdun guciec ez daquigu erdaraz eta particularqui laborariet comprenitceco berehala liburu miragarry hartan diren misterioac, hargatic entreprenitu dut obra chume hau ezcoaraz emaiterat bat bederac yaquin deçatentçat cein erreitx den ezcoaraz comprenitcea lehenagoco eta oraico auctorren sendimenduac.

Pasarte horretako kontu bi gura ditut aipatu, laburki bada ere. Bate-tik, egileak erabili izan duen iturri bibliografikoaren berri damaigu, izan ere, horko *Maison rusticaz* erreferentzia egiten bide dio [10 eta 11] Charles Estienne medikuak 1564an argitaraturiko *L'agriculture et maison rustique* liburu miragarryari [23]. Besteak beste, azpimarragarria da obra hori sei liburutan banatuta dagoela bakoitza makina bat kapitulurekin, denetara 366 orrialde dituelarik —gogoratu, euskarazkoak hamasei orrialde besterik ez!—. Egileak, bestalde, gogoan du euskaldun guztiek ez dakitela erdaraz, partikularki laborariet, eta horregatik ondu du obra xume hori euskaraz eurentzat. Alegia, ematen du *Laborarien abisua* hobeto parekatzen dela Donaixti-Ibarreko Lopez erretorearen 1782. urte inguruko jardunarekin, ezen ez Materre eta Axularrek XVII. mendeko lehen erdian eduki zutenarekin. Hizkuntzaren aldetik ere, *Laborarien abisua* ez da Lapurdiko loraldiaren «klasiko» bati legokiokeen mailakoa [24: 58]; areago, Lafitteren iritziz liburuñoaren «eskuara ere ahal bezalakoa zaiku, ez hanbatekoa» [4: 60]. Ezin dugu ahaztu jatorrizko liburua ez dela ezagutzen; hala ere, osteko kopiak, antza, eskola gutxiko laborari euskaldun elebakarrentzat egin ziren. Karmele Artetxek ere azpimarratu du *Laborarien abisuaren* maila apala, eta bai, hedaduraz, XVII-XX. mende tartean plazaratutako era horretako produkzioarena ere: liburuez gain, almanakak eta egutegiak, baserritar elkarten arautegiak, ganadu-erakusketen arauak, laborarientzako prentsa-artikuluak, esku-orriak eta abar [30: 15-19].

«Mongongo Dassança *chimista*» da liburuñoaren egilea [6-7]. Ximista hori, jakina, kimikaria da euskara zaharrean, baina nor ote zen Mongongo Dassança delakoa? Normalean baxenafartarra zela esaten den arren [1: 95; 24: 58], Txomin Peillenek bestelako xehetasunak aurkitu ditu garaiko dokumentuetan [25: 6-8; 10: 242]. Dirudenez, izan, lapurtarra zen, Donibane Lohizuneko hain zuzen ere. Peillenek ez du bataio-agiririk topatu, baina eskuratua du heriotzakoa izan daitekeena, 1711ko otsailaren bikoia. Barberu-maisu eta botikari gisa agertzen da dokumentu horietan, eta hori bat letorke bere burua ximista gisa aurkeztearekin; antza, Pouillotenean bizi zen, eta Peillenek Donibane Lohizuneko burgesia txikikotzat jotzen du.

Txomin Peillenek dakarrenez [25: 6], aztertu dituen agirietan era askotara idatzita daude hala gure egilearen deitura —D’Assanso, D’Assance, Dassance— nola izena —Mongongo, Monjongo, Moniongo, Muniongo, Dominique—. Anabasa hori gehiago korapilatzeke, deituraren beste aldaera bana aurkituko dugu egile horretaz argitaratu diren azken artikuluan bietan, izan ere, «Monjongo Dassança» darabil Patri Urkizuk [10] (eta bai «Assança» [10: 245]) eta «Mongongo Dassanza» Txomin Peillenek [11]. Nik neuk, Azantza forma onomastiko akademikoa hobetsi dut, zeinean kendu egin baita D’ erdarazko preposizioa, besteak beste [26]. Orobat, ez dago adostasunik izenarekin. Dokumentuetako dispertsioaz gorabehera, Daranutzen argitarapenaren bideetik, bai Lafittek eta bai Villasantek ere badakarte Mongongo estonagarri hori, baina arestian ikusi bezala, ez dago erabilera bateraturik oraintsuko idazlanean (Mongongo vs Monjongo). Kontuak horrela, ez dirudi komenigarria denik mantentzea izen hipokoristikoa exotikoa hori, liburuñoaren misterio-kutsua handitu egiten zuena [27: 1122]. Nik neuk, izen txikiaren edozein aldaera baztertuta forma kanonikora joko nuke, eta beraz, Domingo ponte-izenaren alde egingo nuke. Hau da, Azkue Bibliotekaren Batzordeak landutako «Katalogazio erregelak» aplikatuz [27], Domingo Azantza birbataiatu dut *Laborarien abisua* liburu galduaren egilea. Gaur gero, Domingo Azantza ximista.

Domingo Azantza jaun ximistaren liburuaren mamia Txomin Peillenek [9, 25] eta Patri Urkizuk [10] aztertu dute, eskuzko kopia ezagunak erkatuz. Alde bitan zentratu dira horretarako. Batetik, konparatu egin dituzte kopia bakoitzeko errezetak: zeintzuk dauden kopia bakoitzean, baten bat falta ote den, eta zein hurrenkeratan agertzen diren. Bestalde, hizkuntza kontuez arduratu dira, kopia bakoitzaren euskalki-berezitasunak zehaztuz: noraino igartzen den jatorrizkoaren lapurtera klasikoa, eta kopia bakoitzak zein neurritan jaso duen behenafarreraren edo zubereraren eragina. Halaber, oso kontuan hartu dituzte grafia-aldaketak, eta bai kopia bakoitzak darabilen lexikoa ere. Txomin Peillenek, gainera, errezeta bakoitzaren eraginkortasuna eta eduki dezakeen oinarri zientifikoa ikusmiratu du, eta bai erabilitako terminologia teknikoa.

Artikulu honetan aurkeztuko dugun eskuzko kopia, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Lafitte Funtsean gorderik dago Laf-312-105 erreferentziarekin. Izatez, ez dakar titulurik, ez datarik, ez kopiatzailearen izenik. Paperaren izaera dela-eta, XVIII. mendekoa izan liteke (Josune Olabarria, kom. perts.). Dokumentua koaderno txiki baten erakoa da, gutxi gorabehera DIN A6 formatukoa, eta eskuz zenbakituta dauzka orrialdeak, hasi azalean 1arekin eta 33raino, atzeko azalak zenbakirik ez duelarik. Ertzak-eta nahikoa higatu eta hortzikatuta dauzka, baina, ez dira testu puska handiak galdu, eta erraz irakurtzeko moduan dago oro har. Besteak beste horrexegatik pentsatu dugu interesgarria litzatekeela plazaratzea *Ekaia* aldizkari honetan.

Ikusiko duzunez, Lafitte Funtseko eskuzko kopiak ez du «dedikazionerik», ez «aprobazionerik», eta «othoitça» delakoak betetzen ditu 2. orrialde

osoa eta 3.aren lehen herena. Puntu horretan eta beste hainbatetan Lafitte Funtseko gure kopia nabarmen hurbil dago Jauregiberrirenetik [9], aldeak alde. Otoitzaren ostetik ondoz ondoko hogeita hamabi erremedio datoz bakoitza bere zenbakiarekin; sendabideak eta zenbakiak nahikoa ondo egokitzen dira Jauregiberriren kopiakoekin, nahiz eta azken horretan berrogei diren. Hala ere, 11, 27 eta 28 zenbakidunak ez ditut Jauregiberriren kopian lokalizatu, eta bai ostera *Marexalen liburia* izenekoan, kasurako [13]. Bestalde, ematen du Lafitte Funtseko kopia guztiz amaitu gabe dagoela, izan ere, «Liburu huntan» esanez mozten da bat-batean, 33. orrialdea gainerakoan zuriz utzita; Jauregiberriren kopiak «Liburu huntan diren izen barbaroen explikazionia» azken epigrafean beste pasarte bi ditu *finis coronat opus* klasikoaren aitzinetik.

Kopia irakurtzen duzunean konturatuko zara errezeta askoren prestaketarako, esaterako 2 zenbakiduna, liburuak «konstantinopolitana» deritzon sendabelar misteriotsua aholkatzen digula ezin bizikiago. Hari-piru horretatik umorez tiraka, Jon Juaristik ondorioztatu du Domingo Azantza jaun ximistak berak bide zeukala konstantinopolitanaren monopolioa Euskal Herri osorako-edo, eta hala balitz, orduan, *Laborarien abisua* publizitate-liburuxka bat litzateke, farmakopea bat baino gehiago [24: 59].


Kopia irakurtzean bestelako kontu batzuez ere ohartuko zara, asko eta asko hizkuntzari doazkionak. Bizpahiru ekarriko ditut hona ordena larregi barrik. Esaterako, deigarria suertatu zait likidoen postposizioak beti ere itxura berean ez egitea: *arnotan/ arnouan/ arno berouan/ hour ephéletan/ arnouan trempaturic/ arnotan trempaturic/ hourian/ arno churitan/ houretan/ vina-gretan*. Zer dela-eta bai mugagabea eta bai singularrean ere? Modu berean, asko agertzen dira *bors/ hamaborz/ berce* baina bai *bost/ beftel/ beftera* era-koak, eta sarritan oso-oso hurbil elkarrengandik. Beste horrenbeste esan daiteke aldaera hauekin: *ongui/ ungui/ onxa*. Jakina, lexikoa, maileguak, aditzak, postposizioak... denak dira interesgarri handik edo hemendik, baina ez naiz lotuko horrelakoen azalpenetan, ez dut-eta horretan aritzeko gaitasunik.



Kopiaren azterketa interes handikoa da bere horretan, bai, baina ezinago ilustratiboa da beste kopiekin konparatzea. Esate baterako, Lafitte Funtseko gure kopiako testuan dauden bospasei hutsune —ziurrenez kopiatzaileak jatorrizkoaren hitza ulertu ez eta bildu barik utzi zituenak— Jauregiberriren idazkian aurkitu izan ditut beterik. Adibidez, 5 zenbakidun errezetan, idiaren beherakoa —*sabeltassuna* irakurriko duzu kopian— osatzeko erremedioak kamamila eta adierazi gabeko beste osagai bati dagokion hutsunea dakar: *arruta* dela jakin izan dut Jauregiberrirenekin alderatuz (bide batez esateko, euskarazko «arruta» edo «arruda» *Ruta graveolens* sendabelar emenagogo eta antiepileptikoa da [9]). Baina, era berean konturatzen zara kopiatik kopiarara hitzak aldatu egin direla, kasurako Lafitterenean *vinagre, facilqui, genevre, ahia, agormaniac* aurkituko dituzularik, hurrenez hurren *ozpin, aiseki, orrea, orhia, fumigazioniak* irakurriko zenituzke Jauregiberrirenean. Aldaketa horiek guztiak, hau da, kopia bakoitzak dituen berezko aldeak, ñimiño zein



pisuagoak, oso argigarriak izan daitezke ezaguturiko kopien genealogia osatzeko, eta bai Domingo Azantza jaun ximistaren *Laborarien abisua* liburu galduaren jatorrizkoa berreraikitzeke, neurri batean.



Ildo horretatik, Richard Dawkins dibulgatzaile handiak azaldu du *Canterbury Tales* proiektuak nola berreraiki nahi duen, bai Canterburyko ipuinen 85 eskuizkribu desberdinen historia, eta bai Chaucerrek XIV. mendearen amaieran idatzitako jatorrizko galdua ere, horretarako biologia ebolutiboaren teknikak erabiliz [28: 133-139]. DNArekin gertatzen den bezala, Chaucerren jatorrizko testuak hainbat kopiaketa jasan zituen, zeintzuetan zehar aldaketa akzidentalak gertatu baitziren, kopietan iraun zutenak. Metatuz joan ziren diferentzia horiek artoski jasoz, adituek kopia desberdinen historia berreraiki dezakete, alegia, testuaren zuhaitz ebolutiboa, zeren, izan, prozesu ebolutibo bat baita, akatsen metaketa graduala ekarri duena ondoz ondoko belaunaldietan. Richard Dawkinsek dioenez, hain antzekoak dira teknikak eta zailtasunak DNAren eta literatur testuen eboluzioaren analisirako, non arlo batekoak beste alorrekoak ilustratzeko erabil baitaitezke. Hainbat eta hainbat xehetasun teknikoren ostetik, Dawkinsek zuhaitz filogenetiko bat proposatzen du [28: 138], zeinean islatu baitira Canterburyko ipuinen 24 eskuizkriburen lehen 250 lerroen arteko kidetasunak: begibistakoa da bertan zeintzuk kopia diren elkarren aldaera oso hurbilekoak, eta zeintzuk diren muturreko aberranteak. Zer esanik ez, *Laborarien abisua* galduaren eskuizkribu ezagunak ez dira 85, dezente gutxiago baino, baina horrexek berak erraz lezake era horretako azterketa bat [29], Domingo Azantzaren obraren joan-etorriak argitzen lagunduko lukeena.



Eta jadanik nahikoa luze joan diren prolegomeno hauek bukatuta, ondoan duzu Domingo Azantza jaun ximistaren *Laborarien abisua* galduaren eskuizkribu berria. Ea zer deritzozun.


























4. ERREFERENTZIAK

- [1] VILLASANTE, L. 1979. *Historia de la Literatura Vasca*. 2.^a ed. Editorial Aránzazu. 487 pp.
- [2] ETXEBERRI, P. 1677. *Liburu hau da itsasoco nabigacionecoa, Martin de Hoyarabalec egiña francezes eta Piarres Detcheverry edo Dorrec escararat emana, eta cerbait guehiago abançatuba*. Faksimilea. San Sebastián. Txertoa (1985). 167 or. Ikus: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebDorreItxasoko002.htm>
- [3] ARCOCHA-SCARCIA, A. 2000. «Pierre d'Etcheverry dit «Dorré», pilote et cartographe labourdin du XVIII^e siècle, traducteur en euskara du routier d'Hoyarsabal de 1579». In: *Autour de Bertrand d'Etchaz, Évêque de Bayonne (fin XVII^e début XVIII^e siècle)*. Actes du Colloque des 17 & 18 septembre 1999 / textes réunis par Pierre Hourmat eta Josette Pontet. *Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne*, 57-82.
- [4] LAFITTE, P. 1931. *Eskualdunen loretegia: xvigarren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia (1645-1800)*. Laserre. Baiona. 133 or.
- [5] LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Aintzina. Bayonne. 96 or.
- [6] DASSANÇA, M. 1900?. *Laborarien abissua*. Imp. Lasserre, Bayonne. 16 or. Ikus: <http://82.116.160.16:8080/handle/10690/2551>
- [7] DARANATZ, J.B. 1908. «Un vétérinaire basque du XVIII^e siècle: Mongongo Dassança, Chimista». *RIEV*, II: 585-600. Ikus: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/02/02585600.pdf> edota <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DasanzaAbisua.htm> edota [http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborarien_abissua% 281692% 29.htm](http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborarien_abissua%281692%29.htm) edota <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3431057> edota [http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=10&ved=0CF8QFjAJ&url=http% 3A% 2F% 2Fklasikoak.armiarma.com% 2Frtf% 2FDasanzaAbisua.rtf&ei=-F7DT7PxBIXu8APmzqnjCg&usq=AFQjCNE8E9j4rqf-LvkTMS-UaYRg45Gdog&sig2=yNEdTacG8u5SaxcJEkzDZw](http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=10&ved=0CF8QFjAJ&url=http%3A%2F%2Fklasikoak.armiarma.com%2Frtf%2FDasanzaAbisua.rtf&ei=-F7DT7PxBIXu8APmzqnjCg&usq=AFQjCNE8E9j4rqf-LvkTMS-UaYRg45Gdog&sig2=yNEdTacG8u5SaxcJEkzDZw)
- [8] <http://www.hemeroketa.com/cgi-bin/orria.pl?arg=eskualduna&zein=19081002>
- [9] PEILLEN, T. 1972. «Recueil des recettes vétérinaires de Jauréguiberry (Manuscrit n.º 118 du fonds celtique et basque de la Bibliothèque Nationale-Legs D'Abbadie)». *Bull. Musée Basque* 57: 113-144.
- [10] URKIZU, P. 1999. «Monjongo Dassançaren *Laborarien abissua* (1692) eta honen bi aldaera ezezagun: Jean Pierre Chabalgoityk idatzia (xviii. M.) eta Bertrand Goyenetcheren *Marechalaren liburia* (1831). Aurkezpena, edizioa, oharak eta hiztegia». *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 33 (1): 239-303.
- [11] PEILLEN, T. 2001. «Zuzenketa. Txomin Peillenen liburu bat dela eta». *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 35 (1): 363-365.
- [12] Ikus: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/X/XabalgoitiLaborarien.htm> edota [http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborarien_abissua% 28XVIII% 29.htm](http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborarien_abissua%28XVIII%29.htm)

- [13] Ikus: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/G/GoienetxeMarexal.htm> edota [http://www.vc.ehu.es/gordailua/Marechalen_Liburuia% 281831% 29.htm](http://www.vc.ehu.es/gordailua/Marechalen_Liburuia%20281831%2029.htm)
- [14] OYHARÇABAL, B. 1999. «Les prologues auctoriaux des ouvrages basques des xv^{ie} et xvii^e siècles». *Lapurdum*, IV Spécial 1: 39-93. Ikus: <http://lapurdum.revues.org/1608>
- [15] OYHARÇABAL, B. 1999. «Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat». *Lapurdum*, IV: 81-105. Ikus: <http://lapurdum.revues.org/1545>
- [16] OYHARÇABAL, B. 2001. «Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (xvii-xviii. mendeak)». *Litterae vasconicae: Euskeraren Iker Atalak*, 8: 9-46. Ikus: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=305285>
- [17] OYHARÇABAL, B. 2001. «Ecrits basques et diglossie dans le Labourd du xvii^e siècle: au sujet de l'interprétation de la dédicace d'Etcheberri de Ciboure à C. de Rueil (1627)». 201-214 in: *Eugène Goyheneche: Omenaldia = Hommage*. Lankidetzan, 20. Eusko Ikaskuntza. Ikus: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/lankidetzan/20/20201214.pdf>
- [18] ORPUSTAN, J. B. 2008. «Correspondance basque à la fin du xv^{ie} siècle (1595-1598): 20 lettres de renseignements sur la politique de Henri IV et la fin des guerres contre la Ligue». Texte original transcrit par J. M. Floristán Imizcoz et publié avec introduction et commentaires dans *Fontes Linguae Vasconum studia et documenta*, año XXV n° 63, mayo-agosto 1993, p. 177-219 (1-43), Pamplona. Présentation, restitution en graphie basque moderne, traduction française et commentaire linguistique par Jean-Baptiste Orpustan. Ikus: http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/46/58/17/PDF/Correspondance_basque_1598.pdf
- [19] OYHARÇABAL, B. 1996. «Hitz eratorriak Materreren *Dotrina christiana* delakoan (1617)». *Lapurdum*, I: 37-71. Ikus: <http://lapurdum.revues.org/1858>
- [20] AXULAR (1623). «Irakurtzailleari». Ikus: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AxularGero004.htm>
- [21] OYHARÇABAL, B. 2001. «Statut et évolution des lettres basques durant les xvii^e et xviii^e siècles». *Lapurdum*, VI: 219-287. Ikus: <http://lapurdum.revues.org/1211>
- [22] LAFITTE, P. 1982. «Alfonsa Rodriguez Jesusen Konpañako aitaren giristiño perfetzioniaren praktikaren parte bat heuskarala itzulia, heuskara bezik ezta-kienendako : Donaixti-Ibarre, 1982-IV-18». *Euskera*, 27 (2): 437-442. Ikus: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50979.pdf>
- [23] ESTIENNE, Ch. 1564. *L'agriculture et maison rustique; en laquelle est contenu tout ce qui peut estre requis, pour bastir maison champestre, nourrir & medeciner bestial & volaille de toutes fortes, dresser iardins ... entretenir les prez, viuiers & estangs ... Plus vn bref recueil de la chasse & de la fauconnerie*. Paris. 366 pp. Ikus: <http://archive.org/stream/lagricultureetma00esti#page/n11/mode/2up>
- [24] JUARISTI, J. 1987. *Literatura vasca*. Taurus, 161 or.
- [25] PEILLEN, T. 2007? *M. Dassanzaren albaitaritzak eskuidazkiak (1692-1892)*. Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka, makinaizkribu argitaragabea. 224 or.

- [26] http://www.euskaltzaindia.net/dok/jagonet/DeituraIzendegia_eu.pdf
- [27] EUSKALTZAINDIA. AZKUE BIBLIOTEKAKO BATZORDEA. 2006. «Azkue Bibliotekaren «Katalogazio erregelak»: Bilbo 2005». *Euskera*, 51(2): 1109-1258. Ikus: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/67630.pdf>
- [28] DAWKINS, R. 2004. *The Ancestor's Tale. A Pilgrimage to the Dawn of Life*. Phoenix. 685 pp.
- [29] THE CANTERBURY TALES PROJECT. <http://www.canterburytalesproject.org/>
- [30] ARTETXE, K. 2011. *Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa*. Doktore-tesia. UEU. Ikus: www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/KarmeLe_Artetxe_TESI.pdf
- [31] KINTANA, X. 1973. «Itsasoko nabigazioko liburuaren hiztegi teknikoaz zerbait». 407-425 in *III Semana Internacional de Antropología Vasca*. 2 libk. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.